



3. Oñatiko jolas biltzaileak **SEKUENTZIA DIDAKTIKOA**

Oñati alkarregaz ezaguketako

3. Oñatiko jolas biltzaileak

MUINA

- Helburuak
 - Orokorrak
 - Sekuentzia honen helburua da irakasleak bideratutako elkarrizketa batetik ikasleen interesgune den gai bat ardatz hartuta ikasleen arteko elkarrekintza eta ekiten jardutea ahalbidetuz, beraien gaitasunak ahalik eta gehien garatzea. Horretarako XX.mendean Oñatin egiten ziren jolasak ezagutuko dituzte eta euren gaur egungo jolasteko moduarekin alderatuko dute. Hau eginda, historiaurrean nola jolastuko zuten imajinatuko dute eta hori kontuan hartuz historiaurreko jolas bat asmatuko dute. Honen bidez, errekreoetan jolasteko aukera gehiago izango dute.
 - Espezifikoak
 - Oñatin XX. mendean egiten ziren jolasak ezagutzea
 - Hausnartzeko gaitasuna lantzea
 - Taldean eztabaidatzen jakitea eta ardurak errespetatzen jakitea
 - Arauaren garrantziaz eta hauek errespetatzearen garrantziaz jabetzea eta honen inguruan hausnartzea
 - Jolasteko behar hori inguruko objektuekin asetzea.
 - Ahotsak.eus bezalako atari bat ezagutu eta bertan oñatiarren grabazioak daudela jakitea.
- Azken xedea edo ekoizpena
 - Azken xedea izango da historiaurreko jolas bat asmatzea eta jolas bakoitza fitxa batean azaltzea.
- Ikaste taldea
 - Lehenengo ziklorako pentsatuta dagoen sekuentzia da, printzipioz.

SEKUENTZIA DIDAKTIKOA

HASIERA FASEA

- 1. jarduera → Jolastorduetako jolasak

-Sekuentzia berri honetan jolasak garrantzi handia izango du, hori izango baita gai nagusia. Beraz, jolastordu baten ostean irakaslea harrিতා bezala sartuko da gelara. Esango du jolas berriren bat ikusi duela jolastorduan eta orduan hurrei galdetuko die ea eurek ere ikusi duten.

-Orduan irakasleak hurrengo elkarrizketara bideratuko ditu haurrak: *Zertan jolasten zarete? Eta zeintzuk?* Agian, ariketa polita izango litzateke hausnartzeko jolas moten inguruan. Generoaren gaia landu daiteke esate baterako. *“Zertara jolasten gara eta zergatik?* Igual gustatuko litzaidake beste zerbaitetan jolastea baina gehienek futbolera (adibidez) jolasten dutenez, nik ere horretara jolasten dut.” Hausnarketa interesgarria litzateke.

-Gaia interesatuz gero, posible da baita ere espazio okupazioaren inguruan hitz egitea. *“Mutilen jolasek” zenbat espazio okupatzen dute? Eta neskenek?”*. Hau izan daiteke modu bat horrelako kontuetan murgiltzeko. Eztabaida hau ematen bada, ondorio interesgarria litzateke denon artean konturatzea ez dagoela ez nesken eta ez mutilen jolasik. Jolasak, jolasak direla, besterik gabe.

-Jarduera honi amaiera emango diogu ikasleek jolasten diren jolas guztien izenak arbelean zerrendatzen direnean. Hala, jolastorduan egiten denaren ikuspegi orokor bat izango dugu. Honez gain, beste zerrenda bat ere gehituko dugu eta gelatik kanpo egiten diren jolasak ere zerrendatuko ditugu hurrengo jarduerarako inportantea izango baita (hemen irakaslea saiatu beharko da elkarrizketa bideratzen eta jolas bakartiak burura ekartzen eta zerrendatzera animatzen, hala nola, bideojokoak, ordenagailuak... honek zentzua emango baitio bigarren jarduerari).

- 2. jarduera → Aitona-amonen jolasak

-Aurreko jardueran gaur egungo Oñatiko hurrek nola jolasten duten aztertu da. Eta oraingo honetan XX. mendeko jolasak nolakoak ziren imajinatzen animatuko ditugu haurrak euren aurrezagutzak aktibatu asmoz. Hau litzateke asanbladarako galdera: *Zertan uste duzue jolasten zirela gure aitona-amonak? Zer erabiltzen zuten horretarako? Taldean edo bakarrik egingo zuten? Zein modu da hobea zuen ustez? Zer alde on eta txar ditu?*

-Gaiari pentsakor daudela aprobetxatuz, gogora ekarriko dugu badela AHOTSAK.EUS deitzen den webgune bat eta hor gure zaharren kontakizunen grabazioak eginda daudela eta bertan gai desberdinak jorratzen direla; tartean, jolasak. Beraz, webgune hau aurkeztu eta proiektorearen laguntzarekin aurrez prestatutako bideo pare bat jarriko diegu.

<https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-045-008/>

<https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-106-005/>

-Galdetuko diegu ea zer ulertu duten, ea espero zuten... Bizitza mota diferenteak izan direla ere komenta daiteke...

-Eta hau ikusita etxerako lantxo bat bidaliko diegu: Aiton-amonekin elkarrizketa bat izatea. Elkarrizketa hori norberak landuko du, baina jaso beharko dute zertan jolasten ziren garai horretan. Zer material erabiltzen zuten eta abar. Nahi duenak grabatu egin dezake, nahi duenak jolasak apuntatu (idazketa lantzeko...); libre.

-Hurrengo egunean komentatu egingo den zerbait denez, erantzukizun bat sentitu beharko dute hurrek eta azaldu beharko zaie ondo.

- 3. jarduera → Jolasen asmatzaileak

-Jarduera honetan aurreko ariketan etxean egiteko bidalitako lana aurkeztuko du bakoitzak eta esango du zer esan dioten. Besteok informazioa entzun beharko dute eta antzekotasunak eta diferentziak identifikatu beharko dituzte.

-Lehenko jolasak gaur egungoen aldean, batzuk mantentzen dira eta beste batzuk guztiz galdu dira. Beraz, jolasak sortzen joan direla ondorioztatuko da guztion artean egiten den asanbladan.

-Honi jarraipena eman nahian, irakasleak erronka botako du: *Hara! Eta guk historiaurreko jolasak asmatzen baditugu geuk jolastorduan jolasteko?* Izan ere, gaur egun horrela jolasten badugu, XX.mendean beste modu batera jolastuko zen... bada, zer esanik ez historiaurrean. Burua martxan jartzeko eta inguruarekin konektatzeko aukera bikaina da.

-Beraz, azken xedea markatuta utziko dugu jarduera honetan.

- 4. jarduera → Pentsamendua marraztu eta honekin jolastu

-Jarduera honetan talde txikitan hausnartzen jarriko ditugu haurrak. Planteamendua honakoa da: Badakigu nola jolasten dugun guk, badakigu nola jolasten zuten gure aitona-amonek. Bada, nola jolastuko zuten historiaurreko lagunek?

- 4-6 kideko taldeetan banatuko dugu gela modu librean. Eurek erabaki dezatela norekin jarri. Hau gatazka bat egoteko aukera ona da eta arazoren bat identifikatzen badugu talde horretara joango gara zuzenean eta berehalakoan konpontzen ez bada, arazoa gelara eramango dugu guztion sentipenak ere erdigunera ekarriz (arazoa izan dutenei “nola sentitzen zarete?” eta besteoi enpatia lantzeko “nola sentituko zinatekete?”).

-Honen ostean, talde txikitan jarrita, kartulina bana banatuko zaio talde bakoitzari. Bertan irudikatu beharko dituzte XX eta XXI. mendeko jolasak, hauen diferentziak eta historiaurreko jolasen hipotesiak. Ahalik eta hoberen adierazi beharko dute marrazkiz.

GARAPEN FASEA

- 5. Jarduera → Marrazkiekin hausnartzera jolastu

-Aurreko jardueran egindako lanak taldeka aurkeztuko dituzte gelakideen aurrean. Eta guztien artean jolasteko moduen arteko diferentziak adieraziko dituzte eta historiaurrean jolasteko moduaren usteak plazaratu.

-Bertan entzute aktiboari eta onarpenari emango zaio garrantzia. Nahiz eta esaten denarekin ados ez egon baloratuko da gustuko ez den horren onarpena eta horren gainean norberaren iritzia edo ustea aurkezteko gaitasuna.

-Suposatuko da beste gauza askoren artean ondorio nagusi batzuk irtengo direla. Taldean jolasteko zutela eta inguruan zuten baliabide naturalez edo euren gorputzez baliatuko zirela jolasteko garaian. Honek pentsatzera garamatza euren ingurua oso ongi ezagutzen zutela eta guk ere hala egin beharko genukeela. Hori litzateke atera beharreko ondorioetako bat.

-Beraz, jolasak behar du espazioa, pertsonak, agian objekturen bat, helburu bat eta zer gehiago? Hori da hurrengo jardueran azalduko dena.

- 6. Jarduera → Jolasen arauak

-Hurrengo jardueran arauen inguruan hitz egingo da. Honez gain, irabaztearen eta galtzearen gaia bizitzea ere tokatuko zaie haurrei.

-Arauak zergatik dira beharrezkoak? Araurik ez balego jolasa ondo irtengo litzateke? Guztiek irabazi nahiko dute eta araurik ez baldin badago eta denak balio badu, denek irabaziko dute beti edo sekula inork ez du irabaziko. Zer da araua? Arauak ondo definitzea, beraz, berebizikoa izango da azken xedeko eginkizunean, gaizki-ulertuak saihesteko gehienbat.

Galdera hauek erantzuteko espazioa eskainiko diogu zerbait motza izango delakoan. Hala sarrera emango diogu hurrengo puntuari.

-IRABAZI eta GALDU. *Nori gustatzen zaio irabaztea? Nori galtzea? Irabaztea ona da? Galtzea txarra da? Nola sentitzen zarete irabazten duzuenean? Nola sentitzen zarete galtzen duzuenean?* Sentimendu horiek konpartitzeko gune bat sortuko dugu asanbladan eta gainera anekdotengatik ere galde diezaiekegu: *Akordatzen zara jolas bat irabazi zenuen egunaz? Eta galdu zenuen egunaz? Nola sentitu zinen? Zer egin dezakete besteek zu hobeto sentiarazteko? Zer egin dezake norberak ez gaizki sentitzeko galtzen duenean?*

****Nahi bada hausnarketa hau bizitzeko jolasen bat egin daiteke irabazle eta galtzaile izatearen sentipena izateko.**

-Behin hau eginda barneratu behar dute arauak ondo finkatzea eta errespetatzea modu bakarra dela jolasak funtziona dezan. Eta honez gain, irabazi zein galtzeko prestutasuna adieraztea eta posible den heinean, sentitzea.

EKOIZPEN FASEA

- 7. jarduera → Jolasak sortzen

-Orain bai! Prest daude jolasak sortzeko aurreko dena kontuan izanda. Horretarako talde txikitik banatuko ditugu (4. jardueran jarri diren moduan).

-Jolasak asmatu ahal izateko eta hau dokumentatzeko "Jolasaren fitxa" banatuko diegu. Hor labur-labur bete azaldu beharko dute behar den guztia: Zein den helburua, ea materialik behar den, gutxiengo jolaskide kopurua, nola jolasten den eta arauak. Gogora ekarriko diegu helburua dela historiaurrean jolasteko moduko jolas bat asmatu behar dutela.

-Jolasa asmatzeko modutako bat (gomendatzen dena) libre jolasten sortzen uztea da. Gelatik kanpo posible baldin bada (inguruarekin harremantzeko), eskolatik kanpo ahal izango balitz perfektua litzateke (parke, berdegune edo antzerako leku batean...).

-Jolasa sortzen ari diren heinean, fitxan jaso beharko dituzte datuak. Hurrengo jardueran fitxa hau erabiliko baitute irakasleari jolasa azaltzeko.

- 8. jarduera → Jolasak afinatzen

-Jendea jolasa lantzer ari den bitartean, talderik talde pasako da irakaslea jarduera honetan. Hemen, irakasleak talde horrekin jolasa probatuko du eta esango du ea zerbait hobetu behar den.

-Horretarako, lehenbizi, taldeko batek fitxaren laguntzarekin azalduko dio irakasleari jolasa zertan den. Honen ostean, azalpen egokiak eman baditu, irakasleak ondo jardungo du jolasean eta bere azalean biziko du jolasa. Eta hobetzekoren bat identifikatuko balu arazo bezala planteatuko dio taldeari taldeak ebatzi dezan.

-Irakasleak prozedura hau egingo du talde guztiekin eta guztiek amaitzen dutenean hurrengo jarduerara pasatzeko aukera izango da.

- 9. Jarduera → Jolasak aurkezten

-Aurkezpen hauek jolastorduetan egitea proposatzen da eta aurkezpena eta gero gela guztiak jolas horretara jolas dezan jolastorduan. Hala, haurrak "behartzen" ditugu beste gauza batzuk probatzera eta errutinatik ihes egitera.

-Beraz, talde bakoitzak egunero bat aurkeztuko du eta taldeak berak dinamizatuko du gela irakaslearen laguntzarekin. Jendeak ea kasu egiten duen edo ez ikusiko da eta irakasleak momentu hauek erregistratuko ditu ebaluazioan komentatzeko (eta honi dagokionez nola sentitu diren galdetzeko).

**Jolasek ondo funtzionatzen badute, eskolako beste kideei ere irakatsi ahal izango zaizkie eta jolas horien propaganda egin betiko jolasak ordezkatzeko, agian... nork daki.

- 10. Jarduera → Egindako bidea ebaluatzen

-Sekuentzia honen ebaluazioan, besteak beste, euren sentipenetan murgilduko gara. Beraz, bi zatitan banatuko dugu honako jarduera: Ikasitakoa eta sentitutakoa.

-IKASITAKOA: Talde handian konpartituko dute zer ikasi duten. Horretarako bide bat marraztuko dute arbelean eta bertan ikasitako guztia apuntatuko dute. Argazkia atera dakioke gero.

-SENTITUTAKOA: Sekuentzia honetan egoarekin borroka dezente aurreikusten dira eta haurrak hori ondo ez kudeatzearen ondorioz, izan daiteke momenturen batean haurra gaizki sentitzea, eta beste momentu batzuetan ondoegi. Bada, jarduera hau gonbidapen bat izango da marrazki bidez honakoari erantzuteko: *Jolasen gaitan, noiz sentitu zara hoberen? Noiz okerreren?*

HEZURDURA

- **Hasiera fasea** → Ikasleen aurrezagutzak aktibatu eta pixkanaka gaien murgilduko dira input eta jarduera diferenteen bitartez.
 - 1. jarduera → Jolastorduetako jolasak
 - Helburua: Ikasleak gaien murgiltzea eta errekreoan ikusten dutenaren analisi bat egin eta hau azaltzea.
 - Baliabideak: Irakasleak egingo duen galdera sorta.
 - Ebaluazioa: Irakaslearen behaketa.
 - 2. jarduera → Aiton-amonen jolasak
 - Helburua: Aiton-amonen garaiko jolasen aurrezagutzak partekatzea denon artean. Ondoren, aiton-amonei edo gurasoei galdetzea eta hurrengo egunean gelakideen aurrean asanbladan konpartitzea.
 - Baliabideak: -
 - Ebaluazioa: Entzute aktiboa, errespetua... behatuko dira hemen.
 - 3. jarduera → Jolasen asmatzaileak
 - Helburua: Azken xedea izango den hori finkatzea.
 - Baliabideak: -
 - Ebaluazioa: Behaketa
- **Garapen fasea** → Azken xedea modu egokian bete ahal izateko egin beharreko lanketen proposamena agertzen da fase honetan.
 - 4. jarduera → Pentsamendua marraztu eta honekin jolastu
 - Helburua: Taldeka, hiru kartulina diferentetan marrazki bana egin beharko dute. Batean euren jolasak nolakoak diren, bestean euren aiton-amonenak eta azkenengoan historiaurreko jolasak irudikatuko dituzte.
 - Baliabideak: Kartulinak
 - Ebaluazioa: Behaketa eta kartulinak
 - 5. Jarduera → Marrazkiekin hausnartzera jolastu
 - Helburua: Jarduera honetan gela guztia asanbladan eseriko da eta aurretik egindako marrazkiak konpartitu eta alderatu egingo dituzte. Zer berdintasun, zer ezberdintasun... Hori hausnartuko dute.
 - Baliabideak: Egindako marrazkiak
 - Ebaluazioa: Irakaslearen behaketa (parte-hartzea, egokitasuna eta onarpena)
 - 6. Jarduera → Jolasen arauak

- Helburua: Arauen inguruan hausnartzea. Gainera, hauen arabera irabazi eta galdu egiten dugu. Nola sentitzen gara horrelakoetan?
 - Baliabideak: -
 - Ebaluazioa: Behaketa.
-
- **Ekoizpen fasea** → Landu den guztiarekin lehen fasean finkatutako azken xede hori lortzea edo lortzen saiatzea da fase honen helburua.
 - 7. jarduera → Jolasak sortzen
 - Helburua: 4. jardueran sortutako taldeetan jarriko dira eta jolasa asmatzen hasia da jarduera honen helburua.
 - Baliabideak: Jolasaren fitxa
 - Ebaluazioa: Behaketa eta fitxa
 - 8. jarduera → Jolasak afinatzen
 - Helburua: Sortutako jolasen hutsuneak irakaslearen laguntzarekin indentifikatu eta hobetzea. Eta noski, hauek fitxan zuzentzea.
 - Baliabideak: Fitxa
 - Ebaluazioa: irakaslearen behaketa
 - 9. Jarduera → Jolasak aurkezten
 - Helburua: Asanbladan, jorratutako gaiari espazio bat eskaintzea eta guztiok batera ondorioak ateratzea. (Gaixotasunak, errealitateaz haragoko gertaerak, heriotza izango lirateke jorratu beharreko gaiak)
 - Baliabideak: -
 - Ebaluazioa: Irakaslearen behaketa
 - (Teknika): Asanblada
 - 10. Jarduera → Bidearen ebaluaketa
 - Helburua: Talde handian, jolaslekuan koloretako klarionekin egindako bidea marraztea.
 - Baliabideak: Koloretako klarionak.
 - Ebaluazioa: Irakaslearen behaketa eta taldearen balorazioa.

ERANSKINAK (FITXAK eta JAKINGARRIAK)

OÑATIKO JOLASEN ESPERIENTZIAK (AHOTSAK.EUS)

Hurrengo loturetan Oñatin gure aurreko belaunaldikoek zertan jolasten ziren azaltzen dute. Bideoak Ahotsak.eus-ekoak dira. Lotura bakoitzaren azpian azaltzen duten jolasak daude zerrendatuta.

- <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-105-008/>
 - Bote-bote, harrapo-harrapoka, soka saltuan,
- <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-075-021/>
 - "Gorde-gordeka", "tenteka", "txorro-morrora" eta intxaurrekin "potoloka"
- <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-045-008/>
 - Umetan jolasik egiteko astirik ez zuten izaten. Hala ere, "sapakonetan" (tortolasetan), "afielka" edota sokasaltoka egiten zuten batzuetan. + Asmakizunak
- <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-068-006/>
 - Sapakonetan
- <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-068-012/>
 - Lapiko apurketan
- <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-070-005/>
 - Toke-torreka, txingi txangaka,
- <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-047-010/>
 - Sakaponetan
- <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-053-009/>
 - "atxintxika" karrerak, "harrapo-harrapoka"
- <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-070-006/>
 - .
- <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-070-007/>
 - Neskek sokasaltoka jolasten zuten. Udaberrian "sapakonetan" (tortolasetan) eta udazkenean sokasaltoka jolasten ziren. Txirikiletan udazkenean jolasten zuten, neskak eta mutilek elkarrekin.
- <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-075-020/>
 - "Txirikiletan" garizumako jolasa izaten zen. Auzoko neska-mutil taldeak elkartzen ziren txirikiletan jolasteko errepidean.
- <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-085-016/>
 - **Toka-torreka**, gorde-gordeka (ikasle baten ukuiluan ganadu artean) eta horrelako jolasak egiten zituzten.
- <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-119-034/>
 - txirikiletan
- <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-091-008/>

- Sugandilak harrapatzen, zuhaitzetara igotzen, toka-torreka, eta antzeko jolasetan jarduten zen / sakaponetan, kilifroka, zazpi harrika eta halakoetan.
- <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-106-005/>
 - Jolasak: sokasaltoan, txerrefika pilotarekin, harrapo-harrapoka... Txirikiletan, pote-poteka, gorde-gordeka. Arbolarik arbola ere bai. Neska-mutikoak elkarrekin ibiltzen ziren.
- <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-109-009/>
 - Txirikiletan egiten zuten Garizuman, Ugaztegiko zelai batean. Garizumako jolasa zen. Gordeketan, Txorro-Morro.
- <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-110-006/>
 - Umetako jolasak, belarrekin eta sardina latekin. Aixenarekin egiten zuten soka, sokasaltoan egiteko. Garizuman txirikiletan egiten zuten. Makilarekin txirikila urruti bota behar zen, eta gero handik marrora; bi talde izaten ziren. Txirikila airean hartuz gero, marrora bota beharrik ez.
- <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-110-008/>
 - Zapakunak (tortolosak): saka, ponte, aldar eta toras. Pilota gora botatzen zen. Bildots hezurak. Koloretako papertxoetan batzen zituzten zapakunak, eta bustita, kolorea hartzen zuten. Etxean bildotsak bazituzten.
- <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-143-004/>
 - Umetako jolasak, eskolatik irtenda. Txirikiletan, zapakonak, harrapaketan, banku bankuka, zankarrankan...
- <https://ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-142-010/>
 - Sapakonetan